

GIZARTEA ▶

«Oiangu denontzat nahi dugu»

Herriko gazte batzuk sinadurak biltzen hasi dira Oianguko proiektuaren aurka, alkatearekin bildu ondoren



Herritar bezala euren iritzia ere kontuan hartzea nahi du gazte talde honek. MAIDER DEL OLMO

MAIDER DEL OLMO

Oianguko proiektuak kezka eta zeresana piztu du herritarren artean. Baita gazteen artean ere. Egitasmoaz gehiago jakiteko zuzenean alkatearengana jo du neska talde batek. Alejandra Iturriozek bere bulegoan hartu ditu aste honetan. Eta proiektuaren nondik norakoak azaldu dizkien arren ez omen du euren kezka nagusia argitu: «Nora jo behar dugu gazteek Oiangu kentzen badigute?», galdetu dute: «Alkateari esan diogu ez gaudela ados proiektuarekin. Oianguk denontzat izan behar duela. Eta sinadurak biltzeko erantzun digu. Eta sinadurak biltzen hasi gara orduan. Gazteak garelako guk pentsatzen dugunak ez al du axola?». Herritarrek direla berdin-berdin gehitu dute.

Ahalik eta jende gehienak izenpetzea nahi dute. Hainbat tabernatan utzi dituzte sinatze-

ko paperak denen begibistan. Gero udaletxera eramango dituzte guztiak. Orain arte sinadura bilketa ondo doala esan dute. Oianguk egin nahi dutenarekin ados ez daudenak animatu dituzte.

Eurek zergatik ez duten nahi proiektua aurrera ateratzea galdetuta, honako hau erantzun dute: «Oianguk doako lekua izaten segi behar duela uste dugu. Helduek ordaindu egingo dute golfean jolasteko, eta haur eta gazteek zer egingo dugu orduan? Nora joango gara? Ordiziako gazteak asko joaten gara udan Oiangua. Eta gu bezala haurrak. Guretzat leku berezia da. Baina ez udan bakarrik, urte osoan zehar joaten gara. Gustatzen zaigu, toki lasaia da eta han gustura egoten gara. Kentzen badigute nora joango gara? Ez dugu beste lekurik».

Gazteen ustez, ordea, lekua ez dago «nahikoa zainduta». Inguruak txukundu egin behar

direla esan dute aho batez denek: «Era horretara jende gehiago joango litzateke. Ez dute oso ondo zaindu. Belarra ez dago zainduta eta tabernak ez du orain arte zerbitzu nahikoa eskaini».

Alkatearekin izandako bileraz esan dutenez, «Alejandrak galdetu zigun ea ez al genuen nahi kanpotik jendea etortzea? Guk esan genion baietz. Baina herriko jendeak ere norabait joan behar dugula. Eta Oiangu bezalako beste toki politik ez dago hemen inguruan».

Eztabaidan parte-hartzaile

Oianguko egitasmoaz eztabaida zabaldu da herrian, eta plataforma ireki bat sortzeko nahia ere agertu dute herritar batzuek. Neska hauek prest agertu dira, gazte bezala, parte hartzeko: «Oiangu denontzat eta doakoa nahi dugu. Eta horren inguruan lan egiteko prest gaude», erantsi dute.

KORRIKA ▶

Tiketak salgai Korrikaren afari herrikoirako

Martxoaren 15ean, asteartean, egingo dute Ordizian Korrikaren aldeko afari herrikoia. Gaur eta bihar erosi behar dira tiketak honako leku hauetan: Herrikoa, Leizea, Orlegi, Urdin eta ikastetxeetan. Sei euro balio dute tiketek. Asteartean 20:00etan triki-poteoa hasiko da plazatik. Bertsolariak, trikitilariak eta sagardo kupela izango dira.

BERTSOLARITZA ▶

Bertsolari gazteen Argi Berri saria

Gaur jokatu da bertsolari gazteen Argi Berri saria. Afaria egingo dute lehenik; saioa 22:00ak inguruan hasiko da. Honako bertsolari hauek ariko dira: Miren Arretxe (Hendaia), Aitzol Barandiaran (Ataun), Uxue Fernandez (Urretxu), Agin Rezola (Astigarraga), Andere Arriolabengoa (Aramaio) eta Josu Martinez (Bilbo).

KULTURA ▶



Barrexean irekiko da hilaren 17an kulturgune berria. MAIDER DEL OLMO

D´Elikatuz zentro berria irekitzeaz da

Ordiziako gune berri horretan eskualdeko turismo bulegoa, Goierriko Interpretazio Zentroa eta Elikadura eta Gastronomiaren Zentroak egongo dira. Datorren ostegunean inauguratuko dute, hilak 17, goizeko 10:00etan. Dagoeneko, bestalde, martxan dago web orria: www.delikatuz.com.

MUSIKA ▶

Kontzertu gaua izango da gaur gaztetxean

Kontzertu ugari izango dira gaur Ordiziako gaztetxean. Gaueko 22:30ean hasiko dira. Honako hauek dira joko duten taldeak: Txinaski, Elektrijs dolls eta Repugnancia Social. Azken talde horrek Legazpiko gaztetxean aurkeztu zuen euren disko berria joan den astean. Gaur Ordizian izango dira. Sarreak hiru euro balio du.

AISIA ▶

‘Txatxili txatxi’ aisi egitasmoa gaur goizean

Joan den astean hasi zen *Txatxili txatxi* aisi egitasmoa Ordizian. 40 ume inguruk parte hartu zuten lehenengo egunean. Gaur goizean bigarren saioa izango dute Milagrosena izandako ikastetxean. Helburua eskola ordez kanpo haurren artean euskararen erabilera bultzatzea da. Hitzaro euskara elkarteak antolatzen du egitasmoa.

iragarki laburrak ▶

LAN-POSTUAK

Peoiak. Lanpostuak libre Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria, Antzuola, Zerain, Mendaro eta Villabonan. 943 43 41 27.
Sukaldari laguntzaileak. Sukaldariak, zerbitzariak. Lanpostu

libreak eskoletan, erresidentzietan, Eusko Jaurilarizan. Informatu zaitetz: 943 43 41 27.

Ostalaritza. Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Lanpostuak betetzeko: eskolak, erresidentziak, Eusko Jaurilaritza. 943 43 41 27.

Eraikuntza. Igeltseroak, peoiak. Gipuzkoako udaletan lanpostu finkoak. Informatu zaitetz: 943 43 41 27.
Haur hezkuntza. 106 lanpostu gaztelaniarako, 52 euskararako. Doaneko informazioa: 943 43 41 27.
Mantenimentua. Elektrizistak, iturgiri-

nak, soldatzaileak, arotzak... Erakunde publikoetan libre dauden lanpostuetarako: 943 43 41 27.
Gidariak. Lanpostuak libre. Udaletan, Eusko Jaurilarizan, Diputazioan. Informaziorako telefonoa: 943 43 41 27.

Administratzaile laguntzaileak.

Lanpostuetara laster sartzeko. Udalak: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoeta. Informazioa: 943 43 41 27.